

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2018KO ABUZTUA


Euskal AEko industri jarduera %1,4 gehitu zen 2018ko abuztuan

%2,2ko gehikuntza dago 2018ko lehen zortzi hiletan

Eustaten datuen arabera, 2018ko abuztuan %1,4 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2017ko hil beraren aldean. 2018ko lehen zortzi hiletan %2,2ko hazkunde izan da, 2017ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %4,2 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2018ko uztailarekin alderatuta.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%) Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2018ko abuztuko indizearen bilakaerak, 2017ko abuztukoaren aldean, emaitza ezberdinak dakartza sektore industrial handietan. *Ekipoko ondasunak* %0,7 jaitsi dira eta *Energia* %1,2, baina *Bitarteko ondasunak* %2,9 hazi dira. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, %2,1 gehitu dira: *Ez-iraunkorrak* %2,2 gehitu dira, eta *Iraunkorrak* %1,7.

2018ko abuztuko hil arteko aldakuntzak, 2018ko uztailaren aldean, bilakaera positiboak dakartza industri talde handietan. *Ekipoko ondasunak* %4,9 gehitu dira, *Bitarteko ondasunak* %2,8, *Energia* %0,4. *Kontsumo-ondasunak*, guztira, %0,8 gehitu dira, zeren *Iraunkorrak* %5,8 gehitu baitira eta *Ez-iraunkorrak* %0,9 jaitsi.

Euskal AEko industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak izan dituztenak urte artean hauek izan dira: *Material eta ekipo elektrikoa*, %15,2rekin; *Makineria eta ekipoa*, %9,7rekin; eta *Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak*, %4,6rekin.

Kontrako zentzuan, jaitsi egin dira *Garraio-materiala*, %19,9ko jaistearekin; *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, %2,0ko jaistearekin; eta *Metalurgia eta metalezko produktuak*, %1,0ko jaistearekin..

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-1,0
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-2,0
09 - Kautxua eta plastikoak	1,7
13 - Makineria eta tresneria	9,7
14 - Garraio-materiala	-19,9
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	4,6
12 - Material eta tresneria elektrikoa	15,2
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	1,9

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeka, abuztuko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Gipuzkoan, %4,1eko igoerarekin, eta Bizkaian, %0,9koarekin, baina Araban jaitsi da %2,5.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2018ko Abuztua

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Abu2018 / Abu2017	A(Abu2018) / A(Abu2017)(*)	Abu2018 / Uzt2018	Uzt2018 / Eka2018
Indize orokorra				
Euskal AE	1,4	2,2	4,2	-3,7
Araba/Álava	-2,5	2,9	-1,9	-0,8
Bizkaia	0,9	-1,5	3,3	-1,1
Gipuzkoa	4,1	5,6	8,9	-7,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	2,1	0,0	0,8	-0,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	1,7	-4,0	5,8	3,5
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	2,2	1,6	-0,9	-1,6
Ekipo-ondasunak	-0,7	4,1	4,9	-7,6
Bitarteko ondasunak	2,9	1,7	2,8	-1,2
Energia	-1,2	0,5	0,4	-2,3

(*) 2018ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2017eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62